

Beste batzuekin batera gara

15. saioa

*Jainkoa gauza txikietan dago*¹

Egin irribarre.
Landu harremanak.
Zaindu maite zaituztenak.
Zenbatu izarrak. Deitu zure
lagunei. Esan norbaiti: "asko ere
asko maite zaitut". Hitz egin sarritan Jainkoarekin.
Hartu gogo onez laztanak. Banatu lanak.
Egin barre. Laguntza eskatu. Jo aurrera beldurrik Gabe.
Barkatu zeure buruari. Gogoratu eta idatzi ondo egiten duzuna.
Utzi telebista, hitz egiteko. Egin ametsetan itzarrik. Ikasi nahi izan duzun zerbait. Zeure hutsegiteak
soseguz hartu. Eman eskerrak
Jainkoari eguzkiagatik. Utzi zaintzen eta laztantzen. Aztertu zure ingurukoei gustatzen zaiena.
Prestatu beren urtebetetzeak.
Egon zaitez lasai gure Jainkoaren altzoan. Agertu zeure zoriona.
Zabaldu zeure bihotz ona eta bizi-poza,
eta osasunaren ardura gehiegirik ez izan.
Maitatu zeure burua ere.
Agurtu egunkaria saltzen
dizuna. Apalak
inportante egin.
Maitatu egiten
duzuna. Onartu
laguntzak, Konpondu
eta sendotu zurekin harremanak dituztenen sarea, Zintzo jokatu, munduaren hobekuntza
zeure eskuetan ere badago eta.

¹Iruña, Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Katekesirako Ordezkaritza eta Idazkaritzak, *Familian. 0 eta 6 urtekoen erlijio esnatzea. Hemen nauzu lib.*, 54. or.

